

3-FUNTSEZKO ELKARTEAK

ENPRESA ETA ELKARTEEN ARTEKO ALIANTZA ESTRATEGIKOAK

Enpresa ondo funtziona dezan, ezinbestekoa da hornikuntza lortzeko, planteatutako helburuak batera lortzeko eta egon daitezken arriskuak eta ziurgabetasunak minimizatzen.

Hiru elkarte mota edukiko ditugu: **Koopetentzia, hornitzaileekin elkartea eta konpetentzia ez diren enprekin elkartea.**

KOOPETENTZIA



1-Zazpikaleetako komertzianteen asoziazioan sartuko gara, beraz gure lehiakideekin koopetentzia sortu egingo dugu. Modu horretan, negozioarekin hasten garenean edo aurrerago izan ahal ditugun arazoak saihesten lagunduko gaituzte, planteatutako helburuak batera lortzeko.



2-Bestetik, denda txikiekin elkartuko gara bonoak onartuko duten dendak zehazteko. Denda horiek lekuko produktuak bultzatu behar izango dituzte, Km0-ko bonoak baitira emango ditugunak. Gu, hasieran gure konpetentzia diren dendeei bezeroak emango dizkiegunez, haiek ez digute konpetentziarik egingo eta elkarren artean aliantza sortuko dugu.

HORNITZAILEEKIN ELKARTEA



Gure hornitzaileak bezeroak izango dira, haiek baitira guri arropa eta produktuak ematen dizkigutenak, beraz ez dugu gure hornitzaileekin elkarerik sortu behar. Hortaz, produktuen eskuragarritasuna bermatzeko harremana, gure bezero eta gure enpresaren artekoa izango da.

KONPETENTZIA EZ DIREN ENPRESEKIN ELKARTEA



Gure kasuan, Bilbotruke izango da. Nahiz eta enpresa gurearekiko guztiz berdina ez izan, biok bigarren eskuko produktuak saltzen ditugu, eta elkarri lagunduko diogu. Adibidez, gure beharrak momentu konkretu batean asetu ditzakegu produkturen bat behar izanez gero edota momentu konkretu baterako lankidetzaz eginez.